

## Azalpen oharra, doktorego programetan izena ematerakoan doktoregora sartzeko dauden bide desberdinei buruzkoa

---

### Sartzeko bidea:

- **Gradua + Masterra**  
*(Bide honetatik sar daitezke Espainiako graduako eta masterreko titulu ofizialak dituztenak, betiere, gutxienez 300 ECTS kreditu gainditu badituzte guztira ikasketa mota bi horietan)*
- **Gradua + bukatu gabeko UPV/EHUko masterra**  
*(Masterra bukatu gabe duten **UPV/EHUko ikasleak bakarrik** sar daitezke bide honetatik, betiere, doktoregoko matrikula egiteko epea amaitu baino lehen guztia gainditzen badute)*
- **Unibertsitateko ikasketa ofizialak (300 kreditu, eta, horietatik 60, gutxienez, masterrekoak)**  
*(Bide honetatik sar daitezke 60, 90 edo 120 kredituko masterreko titulu ofizialak dituzten ikasleak)*
- **Unibertsitateko ikasketa ofizialak (300 kreditu, eta, horietatik 60, gutxienez, bukatu gabeko UPV/EHUko master batekoak)**  
*(Bide honetatik 60, 90 edo 120 kredituko UPV/EHUko master ofizialak bukatu gabe dituzten **UPV/EHUko ikasleak bakarrik** sar daitezke, betiere, doktoregoko matrikula egiteko epea amaitu baino lehen kasuan kasuko masterra gainditzen badute)*
- **300 ECTS kredituko gradua (prestakuntza osagarriak egin behar dira)**  
*(Bide honetatik sar daitezke estatuko graduatu titulu ofiziala duten ikasleak, titulazioaren iraupena, Europako Erkidegoko zuzenbideak ezarritako arauekin bat, 300 ECTS kreditukoa bada, gutxienez. Tituludun horiek nahitaez egin behar dituzte doktorego programak ezartzen dituen prestakuntza osagarri espezifikoak, salbu eta duten graduako tituluaren ikasketa planak barnean baditu ikerketako prestakuntzarako kredituak,*

*masterreko ikasketetatik datozen ikerketa kredituen baliokideak direnak hezkuntza balioari dagokionez)*

***Medikuntzako, Farmaziako eta Odontologiako graduak egin dituztenek ez dute masterrik egin behar doktorego programetan sartzeko.***

- Bukatu gabeko UPV/EHUko 300 ECTS kredituko gradua (prestakuntza osagarriak egin behar dira)

*(Graduko titulazio ofizial bat egiten ari diren UPV/EHUko ikasleak bakarrik sar daitezke bide honetatik, titulazioaren iraupena, Europako Erkidegoko zuzenbideak ezarritako arauekin bat, 300 ECTS kreditukoa bada, gutxienez. Tituludun horiek nahitaez egin beharko dituzte doktorego programak ezartzen dituen prestakuntza osagarri espezifikoak, salbu eta duten graduko tituluaren ikasketa planak barnean baditu ikerketako prestakuntzarako kredituak, masterreko ikasketetatik datozen ikerketa kredituen baliokideak direnak hezkuntza balioari dagokionez.*

*Programan matrikulatu ahal izateko baldintza izango da gradua gaindituta edukitzea doktoregoko matrikula egiteko epea amaitu baino lehen)*

***Medikuntzako, Farmaziako eta Odontologiako graduak egin dituztenek ez dute masterrik egin behar doktorego programetan sartzeko.***

- Osasun Zientzietako espezialista titulua (2 urte)

*(Bide honetatik sartzeko baldintza da unibertsitate tituluduna izatea eta osasun prestakuntza espezializatuko plazetarako dagokion proba sarrerako prestakuntzan plaza lortu ondoren osasun zientzietako espezialitateetako bateko titulu ofiziala lortzeko programa baten bi urteko prestakuntza, gutxienez, ebaluazio positiboaz gainditu izana)*

- Atzerriko tituluak

*(Bide honetatik sar daitezke atzerriko hezkuntza sistemen arabera master edo titulu bat dutenak, titulu hori homologatu beharrik gabe. UPV/EHUk egiaztatu egingo du titulu horrek estatuko unibertsitate master titulu ofizial baten baliokide den prestakuntza maila egiaztatzen duela eta titulua eman den herrialdean doktorego ikasketak egiteko aukera ematen duela, eta horregatik, hautagaiak dagokion egiaztatzea aurkeztu beharko du).*

***\*Ministerioak homologatutako titulazioen kasuan "Homologatutako titulazioa" izeneko aukera markatu beharko da GAUREn; eta, bestela, "Beste titulazio bat" izeneko aukera.***

- **Doktore titulua**  
*(Bide honetatik sar daitezke estatuko beste doktore titulu bat dutenak)*
- **Aurreko doktorego planetako ikasleak, ikertzeko gaitasuna egiaztatuta edo Ikasketa Aurreratuen Diploma dutenak**  
*Bide honetatik sartzeko baldintza da lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria izatea eta Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratu izana, apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuan jasotakoarekin bat etorruta, edo urtarrilaren 23ko 185/1985 Errege Dekretuan araututako ikertzeko gaitasuna lortu izana.*
- **Europako Unibertsitate Eremua ezarri aurreko ikasketa ofizialak (lehenago lizentziaturak, ingeniariak edo arkitektoak)**  
*(Bide honetatik sar daitezke lehenago unibertsitate antolaketaren arabera Espainiako unibertsitate titulu ofizial bat dutenak, hau da, lizentziatuak, arkitektoak eta ingeniariak, betiere, gutxienez 300 ECTS kreditu gainditu badituzte guztira unibertsitateko ikasketa ofizialetan –kreditu horietatik 60, gutxienez, master mailakotzat hartzen dira–).*

**Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu doktoregora lehenago titulazioetatik (1393/2007 ED baino lehenagokoak) sartzeko jarraibideak.**